


# Berdintasunaren ikurra eta desberdinkeraren biktima



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**L**ondres, 1557. Robert Recorde (1512-1558) fisikari eta matematikari galestarra *The Whetstone of Witte* matematikako tratatua idazten ari zen, eta etengabe *is equal to* (berdin) esaldia idazten denbora asko galtzen ari zela konturatu zen. *Gemowe lines* edo lerro paraleloak erabiltzea erabaki zuen: “Hitz horien errepikapen aspergarria saihesteko, zabalera jakineko bi lerro paralelo edo biki erabiliko ditut, hori baino berdinagoak diren bi gauza ez direlako existitzen”. Berdintasunaren ikur matematikoa (=) asmatu zuen; hori bai, gaur erabiltzen duguna baino luzexeagoa.

Eta, ikurraz harago, hezkuntza eta aukera berdintasunaren bila ere aritu zen. Obra akademikoak latinez idatzi ohi ziren garaian, ingelesez idaztea erabaki zuen berak. *The Ground of Artes* (1543) lanean oinarritzko aritmetika azaldu zien irakurle “soil ezjakinei”, eta ezagutza matematikorik gabeko merkatariei abakoa erabiltzen irakasteko atal praktikoa bat ere gehitu zuen. Astronomiaz ere idatzi zuen, Nikolas Kopernikoren heliozentrismoaren alde eta ordura arte zabaldua zeuden teoriaren kontra. Antzinaroko eta Erdi Aroko dokumentuetan aditua zen. Gernuaren bidez gaixotasunak diagnostikatzeko metodo bat asmatu zuen. Eta funtzionario lanetarako tartea ere bazuen; Bristolgo Monetaren



ROBERT RECORDEREN 'THE WHETSTONE OF WITTE' (1557) LIBURUAN, ZEHAZKI IRUDIKO ORRIALDEAN, AGERTU ZEN LEHEN ALDIZ EGUN ERABILTZEN DUGUN BERDINTASUNAREN IKUR MATEMATIKOA.

Etxean jardun zuen.

Lan horretan, Henry Herbert Pembrokeko kondea izango zenarekin egin zuen topo edo, zehatzago esanda, nobleak dibisak desbideratzeko emandako aginduarekin. Recordek ezetz esan zuen. Herritar xehearen ezezkoak suminduta, kondeak traizioagatik salatu zuen matematikaria. Recordek bi hilabete eman zituen giltzapean, baina, azkenean, salaketak ez zuen aurrera egin eta aske utzi zuten. Recorde ez zen kikildu. Fondoak bidegabe erabiltzeagatik salatu zuen Pembroke. Baina nobleak Filipe eta Maria errege-erregingana jo zuen, jus-

tizia denentzat berdina ez zela jakitun. Eta, azkenean, salatzailea, Recorde bera, zigortu zuten difamazioagatik: 1.000 libra ordaindu beharko zizkion kondeari, baina ezin zuen. XVI. mendean dirutza izugarria zen hura, batez ere diru publikoak lapurtzeko ohiturarik ez zuenarentzat. 1557an, berdintasunaren ikurra asmatu zuen urte berean, Southwarkeko King's Bench espetxean sartu zuten isuna ez ordaintzeagatik. Hurrengo urtean hil zen, giltzapean eta baztertuta.

XVIII. mendearen hasieran, Recorde-ren berdintasun ikurra estandarra zen Europa osoan. ●

## Distantzia soziala *Garrasia*-rentzat

Edvard Munch (1863-1944) margolari norvegiarraren *Garrasia*, zehazki, egin zituen lau bertsoetatik berriena, 1910ekoa, kolorea galtzen ari da. Teknologia berriak erabiliz, nazioarteko zientzialari talde batek Munchek erabili zituen pigmentuak aztertu ditu, garai hartako kolore sintetiko berriak, biziak, bortitzak, baina eze-gonkorrak. Ondorioa *Science Advanced* aldizkarian argitaratu dute: hezetasuna da

koloreak apaltzearen arrazoi nagusia. Bisitarien hatsa hezetasuna kontrolatzeko oztoporik handiena denez, azken aldian oso ezagunak zaizkigun neurriak jarriko dituzte martxan: Osloko museoko gelaren aforoa murriztuko dute, obraren eta bisitarien arteko gutxieneko distantzia jarriko dute, eta, hori nahikoa ez balitz, *Garrasia* kristalezko kutxa batean konfinatu beharko dute. ●

